

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 823/2023 Erabakia, abenduaren 12koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko kultura ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzeetarako toki erakundeek sustatutako 2024ko dirulaguntza deialdia

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunen artean dago Arabako Lurralde Historikoko kultura-ondare higigarri eta higiezinaren kontserbazioa eta zaharberritzea sustatzea, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuak jasotzen duen bezala..

Esku-hartzeak Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean, Gaztela eta Leongo Kultura Ondareari buruzko uztailaren 11ko 12/2002 Legean, 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legean eta Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren esparruan egingo dira.

Horretarako, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, eta publizitate, lehia, objektibotasun eta berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak ahalik eta gehien zabaltzeko eta horien berri emateko, ebazpen honen bidez ezartzen dira deialdi hau bete behar duten baldintzak.

Trebiñuko enklabean egindako esku-hartzeak jasota daude Burgosko Diputazio Probintziarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenean, Trebiñuko enklabeari buruzko esparru-akordioa garatzeko, babestutako ondasun historiko-artistikoak kontserbatzeko, mantentzeko eta zaharberritzeko proiektuen arloan (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 454/2021 Erabakiaren bidez onartua).

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Ondorioz, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko kultura-ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeetarako toki-erakundeek sustatutako dirulaguntzen 2024ko deialdia onartzea (ebazpen honen I. eranskina).

Bigarrena. Deialdi hori honako hauek kontuan hartuta arautzen da: Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, 2019ko azaroaren 20ko 134 zenbakiko ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoa, eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoa.

Hirugarrena. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldiko aurrekontu proiektuko aurrekontu-partida hauen kargura ordainduko dira, ondoren adierazten diren esleipenekin:

– 70109. G/336702/76800700 "Elementu txikiak, eraikinak eta ermitak zaharberritzea. Toki-erakundeak:"

- 1. modalitatea. Elementu txikiak: 175.000,00 euro.
- 2. modalitatea. Eraikinak: 175.000,00 euro.
- 3. modalitatea. Ermitak: 70.000,00 euro.

– 70103. G/336701/76290700, "Toki-erakundeen ondasun higigarriak zaharberritzeko diru-laguntza:

- 4. modalitatea: ondasun historiko-artistikoak: 80.000,00 euro.

Diru-laguntzak emateko baldintza izango da horiek finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Laugarrena. Organo eskudunak, balorazio batzordeak proposatuta, dagozkion ebazpenak emango ditu, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde interesdunek.

Bosgarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SANCHEZ ARBE

I. Eranskina

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO KULTURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO ETA ZAHARBERRITZEKO ESKU-HARTZEETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, TOKI-ERAKUNDEEK SUSTATUA

1. artikulua. Deialdiaren helburua eta xedea

Deialdiaren xedea da kultura balioa duten kultura ondasun higigarriak eta higiezinak kontserbatu eta zaharberritzeko Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeke toki erakundeek 2024ko ekitaldian bultzatzen dituzten esku hartzeen kostuaren zati bat finantzatzea.

Helburua da esku hartze mota horiek sustatzea eta euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunen titular diren erakundeei erraztasunak ematea Euskal Kultura Ondarearen maitzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritako betebeharrak bete ditzaten ondasun horiek kontserbatzeko, zaintzeko, balioesteko eta zabaltzeko. Ez du inola ere espekulazioan lagundu nahi dirulaguntzen bidez kontserbatu, lehengoratu edo hobetuko diren ondasunekin.

Lau dirulaguntza modalitate ezartzen dira:

1. Elementu txikiak: ekonomia, lana, erlijioa edo aisialdia helburu duten eraikin eta instalazioen kontserbazio eta zaharberrikuntzarako laguntzak, hala nola iturriak, garbitokiak, karobiak, teileriak, errotak, burdinolak, zubiak, eskortak, erlategiak, elur putzuak, bola jokoak eta pilota jokoak, gurutzeak, gurutzadurak, eta abar.

2. Eraikinak: balio arkitektonikoak direla eta garrantzi handia duten tamaina handiko higiezinak kontserbatzeko eta zaharberritzeko dirulaguntzak.

3. Ermitak: ermitak kontserbatzeko eta zaharberritzeko laguntzak.

4. Ondasun historiko-artistikoak: arkitekturari lotutako ondasun higigarriak eta elementu artistikoak kontserbatzeko eta zaharberritzeko dirulaguntzak, hala nola portadak, kapitelak, giltzarriak, horma pinturak, estaldurak, apaingarriak dituzten harrizko edo morterozko elementuak, ondare bibliografiko eta dokumentala, eta abar.

2. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako bideratutako hornidura, zeina Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren proiektuaren partida hauen kontura ordainduko baita, honela banatuta:

– 70109. G/336702/76800700 "Elementu txikiak, eraikinak eta ermitak kontserbatzea eta zaharberritzea. Toki erakundeak", 420.000,0 euro.

- 1. modalitatea. Elementu txikiak: 175.000,00 euro.
- 2. modalitatea. Eraikinak: 175.000,00 euro.
- 3. modalitatea. Ermitak: 70.000,00 euro.

Oinarri arautzaileen 7.1 apartatuan xedatutakoaren arabera (50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Foru Gobernu Kontseiluarena), laguntza lerro horietakoren batean sor daitezkeen soberakinak gainerako lerroei gehitu ahal izango zaizkie, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

– 70103. G/336701/ 76290700 "Dirulaguntza: toki erakundeen ondasun higigarriak zaharberritzea", 80.000,00 euro:

- 4. modalitatea. Ondasun historiko-artistikoak.

4. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

1. Emango diren dirulaguntzetako bakoitzaren zenbatekoa kalkulatzeko, 11. artikuluan ezarritako ehunekoak aplikatuko zaizkio diruz lagun daitekeen aurrekontuari. Dirulaguntzek ez dute inola ere gaitutako 60.000,00 euroko zenbatekoa eskatzaile bakoitzeko, 1., 2. eta 3. modalitateen kasuan, eta 40.000,00 euroko zenbatekoa eskaera bakoitzeko, 4. modalitatea bada. Era berean, ezingo dute gaitutu inbertsioen guztizko kostuaren ehuneko 80.

2. Arabako Foru Aldundiak, konplexutasun tekniko bereziarengatik nahiz kultura balioaren interes publikoagatik gomendagarria denean, dagozkion azterlanak edo proiektuak idatzi ahal izango ditu, edo obren zuzendaritzan edo koordinazioan parte hartu, bere baliabide eta zerbitzu teknikoaren bitartez.

5. artikulua. Erakunde onuradunak eta betekizunak

1. Erakunde onuradunen betekizunak:

a) Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe udalak, kuadrillak eta bestelako toki erakundeak izango dira erakunde onuradunak. Horretarako, diruz laguntzeko diren ekintzen sustatzaile moduan jardun behar dute.

b) Erakunde eskatzaileak dirulaguntzaren xede diren kultura ondasunen titularrak izan beharko dira edo, bestela, haiek erabiltzeko eskubidea izan (kontratua, hitzarmena, gozamina, etab.), bost urtez gutxienez deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, salbu eta Arabako Foru Aldundiak egiten dituen lagapenak badira.

c) Deialditik kanpo geratzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek onespina eman zien Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea arautzeko oinarri orokorrei.

2. Erakunde eskatzaile guztiek aurreikusita eduki behar dute 2024. urtean gauzatzea dirulaguntza emateko oinarria den esku hartzea. Horretarako, esku hartze horretarako behar diren udal lizentziak lortu dituztela egiaztatu beharko dute.

3. Dirulaguntzaren xede diren kultura ondasunek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute:

a) Monumentu edo babes bereziko, ertaineko edo oinarrizko ondasun deklaraturak egotea, edo haien gaineko babes deklarazioaren espediente hasita egotea, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean, Gaztela eta Leongo Kultura Ondareari buruzko uztailaren 11ko 12/2002 Legean eta 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legean jasotakoaren arabera.

b) Katalogatzeko proposamenen batean, garrantzizko multzo historiko-arkitektonikoren batean edo toki erakundeak, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean jasota egotea.

c) Udal plangintzak edo kultura arloko plangintza sektorialak katalogatuta egotea.

d) Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Monumentu Katalogoan agertzea.

6. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduerak, gastuak eta aldia

1. Honako jarduera hauek jaso ahal izango dute dirulaguntza:

– 1. artikuluan azaldutako modalitateetan sartzen diren kultura ondasun higigarri eta higiezinak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeak.

– Kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzeko eta ondasun higigarriak eta higiezinak dokumentatzeko beharrezkoak diren proiektuak, azterlanak, inbentarioak, txostenak eta abar.

– Ondasun higiezinaren inguruko urbanizazio obrak, hiri ikuspegiari balioa emateko balio dutenak zein irizpide funtzionalengatik baino egiten ez direnak.

2. Esku hartze bakoitzean gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, eta merkatuko balioa gainditzen ez dutenak.
- Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen izenean fakturekin egiaztatutako transakzio ekonomikoa direnak; ez dira onartuko beste erakunde batzuek zuzenean ordainduko dituztenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ).
- Aldez aurreko azterlanen, proiektuaren, zuzendaritza teknikoaren, gauzatzeko materialaren zuzendaritzaren eta segurtasun eta osasun koordinazioaren ordainsariak.
- Azterlan edo lan osagarriak, hala nola azterketa historikoak, arkeologikoak edo patologiei buruzkoak, analitikak, erradiografiak, erreflektografia infragorria, etab.

3. Diruz lagundu daitekeen aldia:

- 1., 2. eta 3. modalitateak: esku hartzeak 2024ko urtarrilaren 1a baino geroago hasiak izan beharko dira, eta amaituta egon beharko dute 2024ko abenduaren 29rako.

Dirulaguntzaren xede diren proiektuak eta agiriak idazteko datak aldi horren barruan egon beharko du.

- 4. modalitatea: esku-hartzeak dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren hasiak izan beharko dira, eta amaituta egon beharko dute 2024ko abenduaren 29rako.

4. Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Kultura eta Kirol Sailak ezarritako gidaleroen eta esku hartzeko irizpideen arabera egindako proiektu edo memoriarik ez duten kontserbazio eta zaharberritze jarduerak. Irizpide horiek web orrian daude jasota (<https://web.araba.eus/documents/105044/5666206/Compendio+de+buenas+prácticas.pdf/>) edo Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuan eta Zeharberrikuntza Zerbitzuan kontsulta daitezke.

b) Auzolanean egindako lanak.

c) Oro har, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29.7 artikulua arabera berariaz baztertzen diren gastuak.

5. Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoak, jasotako eskaerak aztertzean, deialdi honen helburua betetzen duten esku hartzeak eta gastuak zein diren ezarri ahal izango du, eta dirulaguntzaren proposamenetik kendu ahal izango ditu, zati batean edo osorik, ezarritakoa betetzen ez duten jarduerak edo gastuak.

6. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betetz, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (40.000,00 euro BEZik gabe, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000,00 euro BEZik gabe, baldin eta horniketa edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die gutxienez hiru hornitzailei, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu eta diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkeztutako hiru eskaintzak justifikazio txostenean jaso beharko dira, eta eskaintza horien artean hautatzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak erabiliko dira. Aukeraturako eskaintza merkeena ez bada, egindako aukera berariaz arrazoitu beharko da memoria batean.

7. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkeztu behar dira (<https://e-s.araba.eus>). Erakunde eskatzaileek inprimaki bat bete beharko dute aukeratu nahi duten dirulaguntza modalitate bakoitzerako.

2. Erakunde eskatzaileek ezin izango dute eskaera bat baino gehiago aurkeztu modalitate bakoitzeko.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 20 egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

9. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera inprimaki bakoitzarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakundeko organo eskudunak laguntza programatuak eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtapena (erabaki hori eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik hartua izan behar da).

b) Proposatutako esku-hartzea azaltzeko agiria:

– Dagoeneko idatzita badago, gauzatze proiektua, dirulaguntza zein fasetarako eskatzen den zehaztuta.

– Idatzita ez badago edo gauzatze proiekturik behar ez bada: esku hartzearen azalpen memoria.

Agiri horiek teknikari gaituek egin beharko dituzte, hau da, titulu ofiziala duten profesionalak. Honako hauek izango dira:

– 1., 2. eta 3. modalitateetan, arkitekturako titulu ofiziala dutenak.

– 4. modalitatean, kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko titulu ofiziala dutenak.

Agiri horretan, balorazioan kontuan hartuko diren alderdiak jaso behar dira: ondasunaren eta haren ingurunearen deskribapena; esku hartzearen premia; kultura aldetik duen balioa, garrantzia eta interesa; genero inpaktua; esku hartzearen metodologia; hondakinen kudeaketa, eta abar.

c) Esku-hartzearen diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.

d) 1., 2. eta 3. modalitateetako ondasunetan, kasu bakoitzaren arabera, proiektuak, azterlanak eta abar idazteko ordainsarien aurrekontua, eta obra zuzendaritzako ordainsarien (arkitektoa), obraren gauzatze materialaren zuzendaritzako ordainsarien (arkitekto tekniko) eta segurtasun eta osasun koordinazioko ordainsarien (arkitektoa edo arkitekto tekniko) aurrekontua.

e) Kultura ondasunaren jabetza egiaztatzen duen agiria edo erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen titulua. Azken kasu horretan, dirulaguntzaren xede diren esku-hartzeak egiteko jabearen baimena aurkeztu beharko da.

f) 1., 2. eta 3. modalitateetan, aplikatzekoa den araudiaren arabera nahitaezko administrazio lizentziak eskuratu izana egiaztatzen duen agiria, bai eta egin nahi den esku hartzea gauzatzeko lizentzia horien indarraldia egiaztatzen duena ere.

10. artikulua. Eskaerak zuzentzea edo hobetzea

1. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, erakunde interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta nahitaezko agiriak aurkezteko hamar egun balioduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

2. Nolanahi ere, aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu Kultura eta Kirol Sailak.

11. artikulua. Prozedura izapidetza eta balioespen irizpideak

1. Hauek izango prozedura bideratzeko eskumena duten organoak:

a) Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua, 1., 2. eta 3. modalitateetako ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko laguntzen kasuan.

b) Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Zaharberrikuntza Zerbitzua, 4. modalitateetako ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko laguntzen kasuan.

2. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta berrikusiko dituzte prozedura bideratzeko eskumena duten organoek, proposamen bakoitzari puntuazio bat emateko eta diruz lagun daitekeen aurrekontuaren zenbatekoa kalkulatzeko, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera.

Hala dagokionean, organo horiei atxikitako langileek ikuskapen bisitak egingo dituzte laguntzaren xede diren kultura ondasunetan, proposatutako esku-hartzeen egokitasuna egiaztatzeko.

Azterlan horien arabera, gastu edo jarduera kontzeptuak baztertu edo, hala badagokio, aldatu ahal izango dira.

3. Proposatutako esku hartzeen balioespena honako irizpide hauek kontuan izanda egingo da:

3.1. 1., 2. eta 3. modalitateetako ondasunak kontserbatzeko eta zaharberritzeko laguntzak (elementu txikiak, ermitak eta eraikinak):

a) Esku-hartzearen premia: 25 puntu.

b) Balio historiko-arkitektonikoa: 20 puntu.

Kontuan hartuko dira babes bereziko edo ertaineko monumentu adierazpena; udal edo sektore plangintzaren babes katalogoetara sartu izana; Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Gaztela eta Leongo Juntaren katalogazio proposamenen batean bildu izana; garrantziko arkitektura multzo batekoa izatea, edo eraikina Arabako Foru Aldundiak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean bildu izana.

c) Kultura eta gizarte aldetik duen interesa eta garrantzia: 16 puntu.

Kontuan hartuko dira interes etnografikoa, interes turistikoa, paisaia interesa eta beste erabilerara publiko batzuetarako gizarte interesa; baita haiek lurralde proposamen estrategikoetan eta proposamen estrategiko orokorretan sartzea ere (ibilbideak oro har, kultura ibilbideak, Agenda 21, kuadrilletako proiektu estrategikoak...).

d) Genero inpaktua: 4 puntu.

Kontuan hartuko dira emakumeek eraikitako, sustatutako edo emakumeak protagonista dituen ondarea ikusarazten duten jarduerak, memoria soziala egitea eta berreraikitzea bultzatzen dutenak, bai eta memorializazio prozesuak ere, genero ikuspegitik.

e) Jarraipena urte anitzerako planifikatutako obretan: 25 puntu.

Aurretik diruz lagundutako alde aurreko azterlanetan, aurreproiektuetan edo proiektuetan oinarritutako lanak, baldin eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak finkatutako monumentuak zaharberritzeko irizpideen arabera landu badira	9 puntu
Diruz lagundutako aurreko faseetako jarraipen obrak, baldin eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak monumentuak zaharberritzeko ezarritako irizpideen arabera egin badira	9 puntu
2020an, 2021ean, 2022an edo 2023an eskatutako proiektu edo obrak, bere garaian dirulaguntzarik jaso ez zutenak	7 puntu

Esku hartzeek azpi irizpide bat, bi edo hirurak bete ditzakete, eta, beraz, puntuak batuko dira puntuazio osoa kalkulatzeko.

Aurreko dirulaguntzat hartuko dira Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak edo Zaharberrikuntza Zerbitzuak emandakoak.

f) Aurkeztutako proiektuaren edo memoria teknikoaren kalitatea: 10 puntu.

Kasu horretan, honako hauek balioetsiko dira: aurkeztutako dokumentazio teknikoaren kalitatea; proiektua edo memoria proposatutako esku-hartzeari egokitzen zaion; metodologia; eraikuntzako teknika tradizionalen eta haiekin lotutako materialen erabilera; materialen zikloaren ikuspegi integrala eta obra faseko hondakinen kudeaketa; eta, hori guztia, proposatutako zaharberritzea kultura ondasunari balioa emateko egin dadin, bat etorri aplikatzekoak diren arauak ezarritako irizpideekin eta Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak monumentuak zaharberritzeari buruz emandako jarraibide eta irizpideekin.

Dirulaguntza eman baino lehen obrak hasita badaude Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren jarraipenik gabe, balioetsi egingo da dirulaguntza ematea bidezkoa den, obren egoeraren eta egindako esku hartzeen arabera.

Eskaera bakoitza zerrendatutako irizpide guztietan balioetsiko da, eta lortutako puntuazio guztien baturak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren gehieneko ehuneko emango du, zeina eskala honen arabera lagundu ahal izango baita diruz:

LORTUTAKO PUNTUAZIOA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUAREN ZER EHUNEKOK JASO AHAL IZANGO DUEN LAGUNTZA
81-100	ehuneko 80
71-80	ehuneko 72
61-70	ehuneko 68
51-60	ehuneko 64
50 edo gutxiago	ehuneko 60

3.2. 4. modalitateko ondasunak zaharberritzeko eta kontserbatzeko laguntzak:

a) Esku-hartzearen premia: 30 puntu.

b) Balio historiko-artistikoa: 25 puntu.

Hauexek hartuko dira kontuan: babes erregimenen bat daukan kultura ondasunaren adierazpena; udal edo sektore plangintzaren babes katalogoetara sartu izana; Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Gaztela eta Leongo Juntaren katalogazio proposamenen batean bildu izana; garrantziko arkitektura multzo batekoa izatea, edo ondasuna Aldundiak, Gaztela eta Leongo Juntak edo Gasteizko Elizbarrutiak egindako inbentarioren batean bildu izana.

c) Kultura aldetik duen esanahia eta interesa: 16 puntu.

Kontuan izango da dirulaguntzaren xede den ondare historiko-artistikoa toki publikoan egoitea eta bisitatu ahal izatea.

d) Genero inpaktua: 4 puntu.

Kontuan hartuko dira emakumeek sortutako edo emakumeak protagonista dituen ondarea ikusarazten duten jarduerak, memoria soziala egitea eta berreraikitzea bultzatzen dutenak, bai eta memorializazio prozesuak ere, genero ikuspegitik.

e) Aurkeztutako proiektuaren edo memoria teknikoaren kalitatea: 25 puntu.

Hauek balioetsiko dira: dokumentazio teknikoaren kalitatea; proiektua edo memoria zenbaiten egokitzen zaion proposatutako esku-hartzeari; metodologia, baliabide teknikoak eta materialak egokiak diren; ahalik eta hondakin arriskutsurik gutxien sortzen duen eta isuri kutsagarriak sortzen dituzten produktuak murrizten diren; eta, hori guztia, proposatutako zaharberritzea kultura ondasunari balioa emateari begira egin dadin, bat etorri aplikatzekoak diren arauetan ezarritako irizpideekin eta Arabako Foru Aldundiko Zaharberrikuntza Zerbitzuak emandako zaharberritze jarraibide eta irizpideekin.

Eskaera bakoitza zerrendatutako irizpide guztietan balioetsiko da, eta lortutako puntuazio guztien baturak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren gehieneko ehuneko emango du, zeina eskala honen arabera lagundu ahal izango baita diruz:

LORTUTAKO PUNTAZIOA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUAREN ZER EHUNEKOK JASO AHAL IZANGO DUEN LAGUNTZA
91-100	ehuneko 80
81-90	ehuneko 72
71-80	ehuneko 68
61-70	ehuneko 64
50-60	ehuneko 60

Dirulaguntzaren xede den jarduerak gutxienez 50 puntu lortzen ez baditu, eskaera ezetsi egingo da.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde hori eratzeko, kontuan hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegingtzako Dekretuaren 3.10. artikuluan hasotako ordezkartza orekatuaren printzipioa. Honako hauek osatuko dute batzordea:

– Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

– Batzordekideak: Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren burua eta Zaharberrikuntza Zerbitzuaren burua edo haiek eskuordetutako pertsonak, eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.

– Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Balioespen batzordeak akta egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, eta egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun zerrenda zehaztuko du bertan. Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe. "Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna emango zaio e), a), b), c), f) eta d) ataletan puntuaziorik handiena lortu duenari, hurrenez hurren, 1., 2. eta 3. modalitateetan; eta e), a), b), c) eta d) ataletan puntuaziorik handiena lortu duenari, hurrenez hurren, 4. modalitatean."

3. Eskatzaileei ez zaie entzunaldiko izapiderik egingo, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

4. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, eman beharreko ebazpenak emango ditu gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

5. Dirulaguntza jasoko duten erakunde eskatzaileen zerrenda eta gainerako eskaeren esanbidetako ezespina jaso beharko ditu dirulaguntza emateko ebazpenak. Deialdi honetan onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu delako baietsi ez diren eskabide guztien zerrenda ordenatua jasoko du, eskabide bakoitzari emandako puntuazioa adierazita. Erakunde onuradunetako batek dirulaguntzari uko egiten badio, ondoen baloratutako hurrengo proiektua lagundu ahal izango da diruz, eta horrela hurrenez hurren.

6. Ebazpenetan, dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, programa edo jarduera eta dirulaguntza emateko baldintzak adieraziko dira. Egin nahi diren jardunen ezaugarriei ñabardurak eransteke baldintza lotesleak ezarri ahal izango ditu, eta onuradunak, jaso beharreko dirulaguntza jasotzen duenean, hitz eman beharko du baldintzak horiek beteko dituela.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan elektronikoki, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatutakoarekin.

13. artikulua. Emandako laguntza onartzea eta eskaerak birformulatzea

1. Baldin eta laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen denetik hamabost egun igaro ostean erakunde onuradunak berriaz eta idatziz uko egiten ez badio, hura onartutzat joko da. Uko egite hori erabatekoa edo partziala izan daiteke, eta, adibidez, proiektuaren dirulaguntza onartu ahal izango da, eta proiektua gauzatzeari uko egin ahal izango zaio.

2. Erakunde onuradunaren batek lortutako puntuazioagatik legokiokeen dirulaguntza baino txikiagoa lortzen bada, deialdirako kreditua agortu delako, erakunde horri eskaera berriz formulatzeko eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak emandako dirulaguntzara egokitzeko. Eskaerak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta ezarritako balioespen irizpideak aplikatuz lortutako puntuazioa eragin zuten baldintzak ere.

3. Prozedurak dirauen bitartean, erakunde onuradunaren batek uko egiten badio dirulaguntzari edo dirulaguntzaren zati bati, organo emaileak erabakiko du, posible bada eta beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza gehiago esleitzea puntuazio hurrenkeran hurrengo dauden eskaerei, baldin eta, betiere, ukoarekin, behar beste kreditu liberatzen bada ezetsitako eskaeretako bati, behintzat, erantzuteko. Era berean, diruz lagundutako eskaeretan gertatutako gorabeherei eta ezustekoei erantzun ahal izango zaie, hala egiteko premia Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txosten teknikoaren bidez justifikatuta.

14. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Egindako gastuak justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Premiazko inguruabar bereziak gertatzen direnean, erakunde hartzaileen izaera eta baliabideak kontuan hartuta, bai eta finantza baliabiderik behar duten ere, justifikatu baino lehen eman ahal izango dira funtsak aurrerakin gisa, bermerik behar izan gabe, dirulaguntzari dagozkion jarduketak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, onuradunak alde aurretik eskatuta eta premia justifikatuta. Aurrerakin horiek ordaindu ahal izango dira baldin eta aurrekontu baliabideak badaude eta emandako dirulaguntza osoaren ehuneko 40 gaingitzen ez badute, eta foru araudian ezarritakoaren arabera.

Gainerakoa egindako gastuak, justifikatu ondoren ordainduko da, eta azken ordainketa horri aurreko paragrafoan aipatutako aurrerakina kenduko zaio.

3. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, 2024ko abenduaren 29a baino lehen, laguntza justifikatzeko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, bitarteko elektronikoen bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan (<https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>):

a) Diruz lagundutako esku hartzearen kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, proiektuarekin lotutako gastuak eta diru sarrerak zehatz-mehatz adierazita:

— Programako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartze-kodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Ahal dela, Excel formatuan edo baliokidean erantsiko da. Zenbatetsitako aurrekontuarekiko desbideratzeak gertatu badira, azaldu egingo dira.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira faktura edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 2.000,00 euro gainditzen badute (BEZa aparte). Era berean, gastu horien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera eta dirulaguntza batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

b) Diruz lagundutako kontserbazio eta/edo zaharberrikuntza jarduketaren memoria. Dokumentazio grafiko eta idatzi nahikoa izan beharko du, egindako esku hartzea eta, hala badagokio, jarduketaren genero inpaktua argi eta garbi deskribatzeko.

c) Eranskin honen 6. artikularen 6. puntuan adierazi bezala, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000,00 eurotik gorakoa izategatik (obra kontratuen kasuan) edo 15.000,00 eurotik gorakoa izategatik (hornidura edo zerbitzu kontratuen kasuan) erakunde onuradunak eskatu dituen hiru aurrekontuak.

d) Egiagiaztagiria, zeinen bidez adierazi behar baita espedientera sartzen diren fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, jatorrizkoak erakunde eskatzailearen eskuetan daudela eta Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela hala eskatzen zaionean.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2024rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaliao atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Gastuak ordaindu izana frogatu ezin bada, "justifikatu beharreko aurrerakin gisa" ordainduko da dirulaguntza. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek ordainketa horiek egin direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute 2025ko martxoaren 31 baino lehen.

4. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoa eta horien formatua Factura-e-ko estandarren arabera izango da. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektronikoa eskaintzen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzazko zerrendan (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

5. Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta hasiera emango zaio "aurrerakin" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastuen guztizko aurrekontua justifikatzen ez bada, dirulaguntza berriz kalkulatu da deialdi honen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Erakunde onuradunak Kultura eta Kirol Sailari ezarritako epea luzatzeko eskatu ahal izango dio, betiere egiagiaztagiriak aurkezteko epea bukatu baino lehen; eta hala badagokio, luzapena zergatik eskatu duen justifikatu beharko du.

15. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

1. Deialdi honen bidez emango diren laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek), bai eta Arabako Foru Aldundiak berak ere, ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin edo baliabideekin. Onuradunak helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntzarik lortzen edo eskatzen badu, horren berri eman beharko dio dirulaguntza ematen duen organoari.

2. Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntzekin edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaindituko sortutako gastuen kostua.

16. artikulua. Betebehar osagarriak

1. Kultura ondasun higigarri eta higiezinaren gaineko eskumenak esleituta dituzten Kultura eta Kirol Saileko zerbitzuek egingo dute dirulaguntza hauek jasoko dituzten jardueren jarraipena. Haiek egiaztatuko dute ea egokitzen zaizkien berariaz onetsitako proiektuetan, Arabako Foru Aldundiak baimendutako eta diruz lagundutako negozio juridikoetan eta esleipena egiteko onetsi zen ebazpenean jasotako xedapenei.

2. Arabako Foru Aldundiak deialdi honen xede izan diren esku-hartzeen irudiak eta ikus-entzunezko eta idatzizko dokumentazioa erabili ahal izango ditu egindako zaharberritzeak eta proiektuak zabalteko eta sustatzeko.

3. Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren finantzaketa dutela, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako proiektua dela-eta argitaratzen diren gainerako material grafiko, idatzizko zein entzunezkoetan. Dokumentazio horrek hizkera eta irudiak era ez-sexistan eta berdintasunez jasoko ditu, eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira. Halaber, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko irudi korporatiboa egoki erabili beharko dute.

4. Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako ondasun historiko-artistikoen lagapena eskatu ahal izango du, aldi baterako erakusgai jartzeko ezin hobeki egokitutako lekuetan eta horretarako egokiak diren lekuetan, zaintza, segurtasun eta kontserbaziorako neurri egokiak jarrita, eta lagatutako ondasun historiko-artistikoen mailegurako beste organismo, erakunde eta partikular batzuen eskaerak ebatziko ditu.

5. Era berean, erakunde onuraduna behartuta dago honako hauek betetzera:

a) Obrak behar bezala gauzatzeko egin beharrekoak; hori dela eta, obren sustatzailea dela joko da.

b) Kultura ondarea defendatzeko eta kontrolatzeko eskudunak diren Kultura eta Kirol Saileko organoek diruz lagundutako esku-hartzea berrikusiko dute obrei ekin aurretik, eta kasuan kasuko proiektuak, memoria teknikoak edo behin betiko aurrekontuak egiteko orduan zorrozki jarraitu beharko zaie haien zehaztapenei.

c) Kultura eta Kirol Sailari jakinarazi beharko dio proiektua edo lanak adjudikatzeko erabakia, hartara gainbegiraketa egin ahal izan dadin.

d) Esku-hartzeak egiten diren bitartean gertatzen den edozein egoera jakingarri Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari ezagutaraziko dio. Hori dela eta, hasierako proiektua aldatzen bada, Arabako Foru Aldundiko sail horri berariazko baimena eskatu beharko dio nahitaez.

e) Halaber, arkeologi azterlana egin behar izatea ekar dezakeen edozein aurkikuntzaren berri eman behar du onuradunak.

f) Kultura ondasun finkatu edo zaharberritua segurtasun, osasun eta apaindura egoera egokian kontserbatzeko konpromisoa hartu behar du.

g) Diruz lagundutako kultura ondasuna beste organismo edo erakunde batera eraman, leku aldatu, mailegatu edo gordailutu bada, horren berri eman behar dio Kultura eta Kirol Sailari.

h) Kultura ondarea defendatu eta aztertzearekin zerikusia duten organismo, erakunde edo elkarte publikoei sartzeko utzi behar die diruz lagundutako kultura ondasunetara, bai eta jendeari oro har ere, Arabako Foru Aldundiak halaxe erabakitzen duenean, hartarako ezarritako moduan.

6. Deialdi honetan jasotako esku-hartzea behar bezala justifikatu gabe gauzatzen ez bada, edo Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan tipifikatutako edozein arau hauste egiten bada, zehapena ezarri ahal izango da aipatutako xedapenen IV. tituluan jasotakoarekin bat etorriz.

17. artikulua. Lanen zuzendaritza fakultatiboa

1. Gauzatze materialaren zuzendaritza, gutxienez, erakunde onuradunak horretarako izendatutako arkitektura teknikoko tituludun batek osatuko du. Pertsona horrek bere gain hartuko du, halaber, obretako segurtasun eta osasunaren koordinazioa.

Beharrezkoa bada proiektu tekniko bat idaztea, arkitekturako goi mailako titulu ofiziala duen pertsona batek ere hartu beharko du parte lanen zuzendaritza fakultatiboan.

Obrei esleitu zaizkien teknikariak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ezarritako zaharberritze irizpideen aplikazioaz arduratu beharko dira.

2. Dirulaguntzari lotutako 4. modalitateko ondasunen kontserbazio zaharberritze lanen zuzendaritza fakultatiboaz Zaharberrikuntza Zerbitzuko langileak arduratuko dira.

Zuzendaritza fakultatiboak kontratatutako enpresari eskatuko dio egikaritze materialaz arduratuko den pertsona bat behintzat izenda dezan. Pertsona horrek kultura ondasunen kontserbazio eta zaharberritze arloko titulu homologatua eduki beharko du.

Ondasun historiko-artistikoaren kontserbazio eta zaharberritze lanei esleitu zaizkien teknikariak Zaharberrikuntza Zerbitzuak ezarritako zaharberritze irizpideen aplikazioaz arduratuko dira.

3. Proiektua egiteko kontratatutako enpresak segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa bere gain hartuko du.

18. artikulua. Kultura ondasunak eskualdatzea

Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 75. artikulua betez, baldin eta erakunde onuradunak, edozein arrazoiengatik, dirulaguntzaren xede den kultura ondasuna salgai jartzea erabakitzen badu hamar urte baino epe laburragoan, deialdi honetako dirulaguntza ematen denetik zenbatzen hasita, lehenik eta behin Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko dio, eskuratu ahal izateko.

Arabako Foru Aldundiak erostea erabakitzen badu, eskuratze prezioetik laguntzaren zenbateko eguneratuaren zenbateko baliokidea deskontatuko da, zeina konturako ordainketatzat hartuko baita.

Arabako Foru Aldundiak ondasuna ez eskuratzea erabakitzen badu, erakunde onuradunak kultura ondasuna zaharberritzeko emandako laguntzaren zenbateko eguneratua itzuliko du.

19. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da: www.araba.eus.

20. artikulua. Legedi aplikagarria

Honako hauek arautuko dute deialdia:

– Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Kultura eta Kirol Sailaren lehiaketa bidezko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak, eta haren ondorengo aldaketek.

– Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailearen 11ko 12/2002 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea eta Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduera Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua.

– Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontuzko jaurbideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua eta indarreko Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

– Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 lege organikoa eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 lege-gintzako dekretua.

– Trebiñuko enklabean egiten diren esku hartzeak Trebiñuko enklabeari buruzko esparru akordioa garatzeko (babestutako ondasun historiko-artistikoak kontserbatzeko, mantentzeko eta zaharberritzeko proiektuen arloan) Burgosko Diputazio Probintzialarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenean jasota daude (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 454/2021 erabakiaren bidez onetsia).

– Aplikatu beharreko gainerako arauak.